



FESTETAKO KARTEL LEHIAKETA BURLATA 2022

HAURREN MODALITATEA

- 1. GAIA.** Burlatako jaiak 2022.
- 2.** 2008. urtea baino lehen jaio eta Burlatan erroldatutako haurrei zuzendua.
- 3.** Honako testu hau agertu beharko da derrigorrez kartelean: **FIESTAS DE BURLADA: DEL 14 AL 20 DE AGOSTO DE 2022 / BURLATAKO JAIK: 2022KO ABUZTUAREN 14TIK 20RA.**
Herriko armarrria jarri beharko da.
Lehiaketatik kanpo geldituko dira baldintza hauek betetzen ez dituzten kartelak.
- 4. FORMATUA.** A3ko kartulina.
- 5. Erabilitako materialak** libreak izanen dira, eta obra bakar bat aurkeztu ahal izanen da.

6. AURKEZPENA.

Epea: ekainaren 10era arte Kultur Etxeko bulegoetan (Bentetako Ingurubidea 1), 08:00etatik 14:00etara.

Aurkezten den obra bakoitzaren atzean, gutun-azal bat itsatsiko da kartulinara, honako datu hauek bilduko dituena: izen-abizenak, adina, helbidea, telefonoa, zer ikastetxetan ikasten ari den eta zer eskola-kurtso egiten ari den. Halaber, haurrentzako modalitatean aurkezten dela adierazi beharko da.

7. SARIAK.

Lehengo saria: eskola-material sorta bat, 60€-ko balioa duena.

Bigarren saria: eskola-material sorta bat, 30€-ko balioa duena.

Sariak abuztuaren 14an emanen dira, 11:00etan, Burlatako osoko bilkuren aretoan.

Saria egun horretan jasoko du irabazleak, edo, bestela, haren ordezkari gisa joaten den pertsonak –kasu horretan, aurretik, abisatu beharko da-. Bestela, eman gabe geldituko da.

- 8. EPAIMAHAIA.** Epaimahai kalifatzailan, Kulturaren eta Jaien Patronatuko lehendakaria edo hark izendatutako persona ariko da buru, eta arte plastikoetan adituak diren beste bi personak ere osatuko dute. Epaimahaiak hala erabakiz gero, saria eman gabe geldi daiteke.



HELDUEN MODALITATEA

Burlatako 2022ko Jaien kartel ofiziala aukeratzea da lehiaketaren helburua.

1 14 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte, eta gehienez ere 2 lan aurkez daitezke; lanek jatorrizkoak izan behar dute. Lehiaketatik kanpo geldituko dira edozein modalitatetan argitatutako argazki, kartel, margo eta abarren plagio diren lanak, erabatekoa edo zati batean izanik ere.

Honako testu hau agertu beharko da derrigorrez kartelean: **FIESTAS DE BURLADA: DEL 14 AL 20 DE AGOSTO DE 2022 / BURLATAKO JAIK: 2022KO ABUZTUAREN 14TIK 20RA.**

Herriko armarrria agertu beharko da ezagut daitekeen moduan, baina kartelaren estilora egokitu daiteke.

Lehiaketatik kanpo geldituko dira baldintza hauek betetzen ez dituzten kartelak.

2. FORMATUA. Lanek tamaina bakarra izan beharko dute (70 cm-ko altuera x 50 cm-ko zabalera), formatu bertikalean, azalera zurrun (luma-kartoia) baten gainean eta zintzilikatzeko prestatua. Halaber, euskarri digitalan ere aurkeztuko da kartela.

3. Edozein teknika erabil daiteke.

4. AURKEZPENA: Epea: ekainaren 10eko 14:00ak arte Kultur Etxeko bulegoetan (Bentetako Ingurubidea 1), 08:00etatik 14:00etara. Era, berean, helbide horretara bidal daitezke, fakturatuak edo posta bidez. Kulturaren eta Jaien Patronatuak ez du bere gain inolako erantzukizunik hartuko posta bidez bidalitako lanetan gerta litezkeen kalte edo galerengatik, ez eta lehiaketa bukatuta lanak itzultzeak ere.

Egile-sinadurarik Gabe aurkeztuko dira kartelak, libreki aukeratutako goiburu batekin. Goiburu hori kartelaren atzealdean idatziko da, eta, gutun-azal itzi batean, egilearen datuak agertuko dira: izen –abizenak, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa eta NANAREN fotokopia.

Lehiaketa bukatuta eta 8, oinarrian aurreikusitakoarekin bat, lehiaketan parte hartzen duten pertsonak urtea bukatu arteko epea izanen dute kartelak jasotzeko; salbuespena dira saritutako lanak. Kulturaren eta Jaien Patronatuaren jabetzakoak pasatuko baitira, eta, hortaz, ulertuko da egileek uko egiten dietela eta galtzen dituztela erreklamazioia egin edo kalte-ordaina eskatzeko eskubide guztiak. Lehiaketan parte hartzen dutenek ordainduko dituzte kartelen bidalketa-gastuak eta itzulketa-gastuak.

5 SARIAK.

Lehenengo saria: 900€.

Bigarren saria: 200€.

Sariak heldu den abuztuaren 14an emanen dira, 11:00etan, Burlatako osoko bilkuren aretoan.

Saria egun horretan jasoko du irabazleak, edo, bestela, haren ordezkari gisa joaten den pertsonak –kasu horretan, aurretik, abisatu beharko da-. Bestela, eman gabe geldituko da.

6. EPAIMAHIA. Epaimahai kalifikatzailean, Kulturaren eta Jaien Patronatuko lehendakaria edo hark izendatutako persona ariko da buru, eta arte plastikoetan adituak diren beste bi persona ere bai. Epaimahaiak hala erabakiz gero, saria eman gabe geldi daiteke. Hiru kartel finalista aukeratu ditu. Haren erabakia apelaezina izanen da.



Kultur eta Jaietarako Udal Patronatua
Patronato Municipal de Cultura y Fiestas

Burlatako Udala
Ayuntamiento de Burlada

Ronda de las Ventas 1/**Bentetako Ingurubidea 1**
31600 Burlada (Navarra) / Burlata (Nafarroa)
Tfno: 948 13 64 20
www.burlada.es / www.burlata.eus
CIF / IFZ G/31169386

Jarraian, herritarrek parte hartzeko prozesu bat zabalduko da ekainaren 17tik 27ra, bozketa indibidualaren bitartez; izan ere, herritarren boto gehien bildutako lanak irabaziko du. Boto emateko bide batzuk daude: udaletxeko Herritarrendako Harrera Zerbitzura joanda, 14:00ak arte, Kultura Etxeko bulegoetan eta Udalaren webgunean: (www.burlata.eus). Honako hauek dira boto emateko baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea eta Burlatan erroldatuta egotea.

7. Saritutako kartei dagokienez, Kulturaren eta Jaien Patronatuak nahi adiña erreproduzio egin ditzake nahi eran erabiltzeko.

8. Kulturaren eta Festen Patronatuak aurkeztutako lanekin abuztuan erakusketa bat egiteko eskubidea gordetzen du.

9. Lehiaketako parte-hartzaileek oso-osorik onartzen dituzte oinarriok, baita Epaimahaia-ren erabaki apelaezina ere.